



BESTAK 2025

**ARANTZA, ETXALAR, LEKAROZ,
ORONÓZ-MUGAIRI, AMAIUR,
ZUGARRAMURDI, ZUBIETA, GOIZUETA,
DONAMARIA, EZKURRA, ARESO,
NARBARTE, LEGASA**

ttipi-ttapa | 883 zk. | 2025-07-31



ARANTZAKO BESTAK 2025



BIDAL ETXARTE

Abuztuak 14, ortzeguna

12:00etan txupinazoa. Ondotik, kalejira herriko txistulariekin eta Lesakako Musika Eskolako akordeoilariekin. Horrez gain, azken urtean jaiotako haurrei ongietorria eta programaren marrazki lehiaketako sari banaketa. **12:30ean** herriko dantzarien emanaldia. **14:30ean** herri bazkaria Euskal Parrillaren eskutik eta Trikidantz taldeak alaitua. **18:00etan** herriko eskolako ikasleek marraztutako kartelen erakusketa gorapean eta haurrentzako eta gazteentzako jokoak. **20:00etan** musika plazan

3TTU taldearekin. **21:30ean** zenezuzkoa. **00:00etatik aitzinera** musika plazan 3TTU taldearekin.

Abuztuak 15, ortziralea

10:00etan diana herriko txistulariekin. **11:30ean** meza. **12:00etan** Arantzako Dantza Luzea frontoian. **18:00etan** herri kirolak frontoian, sarrera borts euro pagatuta. Alde batetik, Nafarroako III. Mailako Aizkora Txapelketako finala: Julen Urrutia (Arraioz), Beñat Senosiain (Olague), Xabier Mitxelena (Irurita), Ioan Goikoetxea (Etxarri Aranzatz) eta →

ongi pasa bestak!

aterpe
albergea jatetxea ostatua
T. 948 634 179 | ARANTZA | www.arantzeta.net

I.M.
RRIXKO
IGELTSERITZA
IGELTSERITZA ETA ZURGIN LANAK
661 735 052
ARANTZA
ESTRUKTURAK · TEILATUAK · FATXADAK · ZAHAR BERRITZE LANAK

Jauriena
Instalazio elektrikoak
ELEKTRIZITATE LANAK
Erreformak, etxe berriak
Lantegietarako mantentze-lanak
EGUZKI
PANELEN
INSTALAZIOAK
ONGI PASA BESTAK!
948 631 217 | 630 136 863
Julio Caro Baroja 6, 31780 Bera
[jaurnabera@gmail.com](mailto:jauernabera@gmail.com)

Burlada
Ostatua-jatetxea
BOKATAK · PLATER KONBINATUAK · KARTA · MENUA
ongi pasa bestak!
BEREZITASUNAK
Haragiak
Arrainak
Etxeko Postreak
MENU BEREZIAK
Taldeak
Mendizaleak
Jaunartzeak
Otorduak
T. 948 63 40 27 - 711 739 516 | ARANTZA
restauranteburlada@hotmail.com
www.restauranteburlada.com

arropa-denda
etxeko osagarriak
lentzeria
Arturo
Altzate, 30 BERA
T. 948 630 136

LAN EDER
Anterola S.L.
Tekniko instalatzailea
ITURGINTZA | GASA | KALEFAKZIOA
Zerbitzu anitzak &
Gremioen koordinazioa
629 449 602

PABLOETA
ongi pasa bestak!!
Menua, karta, plater konbinatuak,
etxean egindako pizzak, ...
taldeak ere hartzen ditugu.
Goiko karrika, 5 • ARANTZA • 948 634 077

E D A R I A K
ongi pasa bestak!
MANUEL TABERNA S.L.
Bidasoa, 76 - 31780 BERA
948 63 10 27 670 598 560
info@tabernaedariak.eus
www.tabernaedariak.eus

Alberto RETEGI
abokatua
948 630 763 · Alzate, 17 · BERA

PRIMI
ostatua
Ongi pasa bestak!

Goiko karrika, 7 · ARANTZA · T. 948 634 052

ilargi
okindegia
APEZENA

Ongi pasa bestak!



Enkarguak: 948 634 156 · ARANTZA



→ Eñaut Oiarbide (Etxarri Aranatz). Bertzetik, Nafarroako Gizonezkoen Txokor Biltze Txapelketako finala: Josu Elizalde (Betelu), Unai Iantzi (Aniz), Ander Arbilla (Larraintzar), Manex Sarasola (Igantzi) eta Luken Urtxegi (Igantzi). Azkenik, Nafarroako Emakumezkoen Txokor Biltze Txapelketako finala: Leire Herrera (Antsoain) eta Ainhoa Etxegarai (Bera). **20:00etan** musika plazan Ezinegon taldearekin. **21:30ean** zezensuzkoa. **00:00etatik aitzinera** musika plazan Ezinegon taldearekin.

Abuztuak 16, larunbata

10:00etan diana herriko trikitilariak. **Ordu berean** herriko pilota txapelketako finalak: haurrenak eta helduenak. **17:00etan** entzierro ttikia plazan. **18:00etan** auzoen arteko desafioa frontoian. **20:00etan** burhandiekin eta herriko musikariekin

kalejira. **20:15ean** mutxikoak plazan Holako taldearekin. **21:30ean** auzoe-tako afariak. **00:00etatik aitzinera** musika plazan Belfast taldearekin. ***Puntu morea eta bestabusa abuztuaren 16an izanen dira.**

Abuztuak 17, igandea

10:00etan diana herriko trikitilariak. **11:30ean** puzgarriak frontoian. **12:30ean** bertso-kantu poteoa Joanes Illarregirekin eta Ekhiñe Zapiaineekin. **14:00etan** elkartasun bazkaria eskolan. **17:00etan** haurren lasterketa eta merienda. **18:00etan** pilota partidua frontoian, sarrera bertz euro pagatuta. Batetik, Bortzirietako gaztetxoaren partidua; bertzetik emakume profesionalen partidua: Arrizabalaga-Capellan, Ibarrola-Gaminderen kontra. Azkenik, gizonezko afizionatuen partidua: Olaetxea-Lizeaga, Apezetxea-Apezetxearen kontra. **20:00etan** Nemux diskofesta. **21:30ean** zezensuzkoa.



ARANTZAKO UDALAK BESTA ONAK OPA DIZKIZUE ARANZAR ETA BISITARI GUZTIEI

«Etxekoekin herriko dantza dantzatzea berezia da»

ROSA MAIZ GOÑI ARANTZAKO GURASOA



Herriko bestak maite ditu Rosa Maiz Goñi arantzarrak eta hori agerian gelditu da bestei buruz solasean hasi orduko. Ikusle edo parte hartzaile, ekitaldi batean eta bertzean hutsik egitea gustatzen ez zaion horietakoa da. Eta aurtengoen atarian, haiei begira jarri da T'tipi-T'taparekin.

Ttikitatik gustatu izan zaizkio bestak, hala aitortu du, haurra zeneko «oroitzapen onak» dituela erranez: «Beti oroitzen naiz bestak akabatzen zirenean, tristura ikaragarria sentitzen nuela eta ezin sinetsiz egoten nintzela». Herrian «ordu pila bat» pasatzeak egiten zituen berezi: «Ez dakit zer bait berezia egiten nuen, baina herrira aunitz ateratzen ginen, normalean baino gehiago, eta hori aunitz gustatzen zitzaidan. Herri iskinean jende aunitz izaten zen eta denekin egoteko aukera izaten genuen».

Haur denborako oroitzapenak bihotzean, gaztea zenean ere ez zituen alde batera utzi bestak: «Eguneko eta arratsko besta probesten nuen. Gaztea zarenan arratsko besta nahi izaten duzu, baina nik egunez ere ez nuen deus galdu nahi izaten. Loari kentzen nion denbora, eta parte hartzen ez bazen ikusle, ekitaldi gehienetara joan nahi izaten nuen».

Gaur egun, ordea, «diferente» bizi ditu: «Ez dakit bestak aldatu diren edo ez, baina niri aldatu zaizkit», adierazi du. Bere irudiko, «adinarekin besta egiteko modua aldatzen da» eta bere kasuan, «arratsko besta aunitz murritu» delakontatu du, nahiz eta «egun pare batean» ez duen hutsik egiten: «auzoko besta egunean eta lagunekin afaria egiten dudanean. Gainerakoan egunez gehiago probesten ditut». Gehiago ere erran du: «Arratsko bestarako etxean badut erreleboa».

Auzoetako desfioa eta herriko dantza
Bestetako egitarauari erreparatuta, berriz, «ekitaldi aunitz eta herritar guzien gustukoak» izaten direla dio. Horien artean, ordea, badira batzuk bertzeak baino kuttunagoak dituenak: «auzoetako desfioaren eguna eta abuztuaren 15a». Biak ditu gustuko: «Abuztuaren 15a, Arantzako dantza eta familiako bazkaria dela medio, bestetan nahitaezko eguna dela iruditzen zait; ohiturarekin lotzen dut. Eta auzoetako desfioa ez da aspaldixekoa, baina adin guzietako jendea biltzen gara, frontoia herritarrez betetzen da eta hagitz polita da».

Auzoetako desfioaren egunean, Azkilarrea auzoaren bereizgarri, —>

F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea
jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 620 172 679

ARGITU
ZERBITZU ELEKTRIKOAK

**KOADRO ELEKTRIKOAK BERRITZEA
MATXURA ELEKTRIKOAK
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
MANTENTZE-LAN ELEKTROMEKANIKOA
MOTOR ELEKTRIKOAK**

BERA | 722 287 269 | argitusl@gmail.com

Zurekin DISEINUAK
KANPO NAHIZ BARNE DISEINURAKO BEHAR DUZUNA, ETORRI IKUSTERA KONPRIMISORIK GABE!

**SUKALDEAK | LURRAK | ARMAIRUAK
ATEAK | TEILATUAK | EGURLANAK**

Ongi pasa bestak!
Kanttonberri, 3 BERA • Tel: 722 52 14 71

XAGU LIBURUDENDA
Tel. / Fax 948 638 232
Koskontako bidea, 7
(osasun-zentroaren parean)
31770 LESAKA

- PAKETEAK JASOTZEKO GUNEA
- LIBURUDENDA
- KOLORETAKO FOTOKOPIAK
- USBURU EGINDAKO INPRIMAKETAK
- ESKANERRAK
- ESKOLA MATERIALA
- INFORMATIKAKO MATERIALA
- BULEGORAKO MATERIALA
- EGUNKARIAK, ALDIZKARIAK



BILTEGIA: 948 630 102
SAKELAKOA: 633 480 563

Bidasoa, 76 - atea 21-22 • BERA



Altzate, 19 • BERA •
T. 948 630 786

regina tolosa
FISIOTERAPEUTA

K-STRETCH **K-STRETCH**
Etorri eta probatu debalde!

San Esteban, 17 • T/F. 948 625 206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • T/F. 943 633 050 • IRUN

Ongi pasa bestak!

 Centro Prim  regina tolosaechebare



Guillermo LARRAÑAGA doktorea
KIRURGIA KARDIOBASKULARRA / FLEBOLOGIA / LINFOLOGIA

- Barizeak, prebentzioa, diagnostikoa eta tratamendua
- Kirurgia integrala teknika pertsonalizatuekin
- Tratamendu estetikoak, armiarma-barize eta malformazioena
- Ekografia kardiobaskular diagnostikoa
- Ekointerbenzionismoa
- Zainetako ultzerak, gaixotasun linfatikoak

Ongi pasa bestak!

Telefonoa: 610 549 507

Centro Médico Bera
San Esteban 17, Bera

kamiseta beltza soinean, taldean parte hartzen edo taldea animatzen izaten da. Baita aurten ere.

Eta Arantzako Dantza Luzea dantzatu behar duenean ere hantxe. Haurazela, «Lucia Iparragirre, Amaia Telletxea eta Nerea Alzurirekin» ikasi zuen, eta geroztik guttitan huts egin du: «Lau urtez ez dut egin izanen, bi urte seme-alaba bakoitzeko». Baina bertzela hortxe, abuztuaren 15eko eguerdian, traje zuri-gorria jauntzita, dantzatzeko prest. Han izanen da aurten ere, aranztar aunitzentzat bezala, «berezia» delakoz beretzat ere: «Ez dakit ikusten dutenek nola bizi duten, baina barrenean zaude-nean, hagitz berezia da. Musika aditze hutsak barrena mugiarazten du».

Sentimendu «kontrajarria»

Herriko dantzaren bueltan «sentimendu kontrajarri» bat izaten duela ere onartu du: «Alde batetik, utzi beharko nukeela iruditzen zait, urtero dantzari gaztetxo kuadrillaxka hasten delakoz, eta ni bezalakoez uzten ez dutenez, frontoian ezin sartuz ibiltzen garelako. Baina bertze aldetik, familiakoez dantzatzeko poztasun handia ematen dit, sentsazio berezia». Eta horixe du, hain zuzen, «segitzeko aitzakia». Alabarekin, semearekin, ilobarekin, ahizparekin... Etxekoan taldetxo biltzen da, eta «ohartu naiz ia-ia bestetako ekintzarik politenetariko bat dela niretzat». Edozein moduz, «muga paratu» omen dio bere buruari: «Aurten eta heldu den urtean aterako naiz azken aldiz, heldu den urtean aterako baita iloba ttikia, Intza. Nik uste orduan emanen diodala despedida».

Haur eta gaztetxoek krosa antolatzen

Bestetako haur eta gaztetxoek krosetan ere ez da urruti izaten. Hasieratik

antolatzaile ibili da, beti ilusioz eta lanerako gogoz, egiten duena ongi egingez, eta «gustu handiz»: «Lana izan arren, dezente ateratzen dela eta jendeak parte hartzen duela ikusteak segitzeko gogoia ematen dizu».

Lasterketaren harira, gogoan du lehenbiziko edizioan izan zutela «salsarik handiena»: «Bestetan haurrentzako ekitaldiak eskas zirela ikusita, guraso elkarteak programa osatzen hasi zen, eta Gurutze eta biok haur eta gaztetxoek krosa sartzea pentsatu genuen. Antolakuntza aldetik hura izan zen zailena: nola egin erabaki, distantziak neurtu, kategoriak eta ibilbidea zehaztu... Baina harrera ona izan zuen eta geroztik, antolatzen segitu dugu». Esplikatu duenez, «urteak urtera gaizki ateratzen dena hobetuz, gero eta aisago egin dugu. Gainera, azken urteotan taldetxo bat osatu dugu antolatzeko eta hola errazagoa da». Ekitaldiak izaten duen erantzunarekin ere kontent da: «Jende aunitzek parte hartzen du. Joan den urtean, adibidez, 61 izan ziren eta lasterkari gehiagoko urteak ere izan dira. Ekin-tza polita da, mantendu beharrekoa».

Hamar urtez krosa antolatzen ibili ondok, aurtengoa izanen du azkena. «Pena» ematen diola onartu du, «horrek erran nahi baitu Arantzako eskolan ez dela nire seme-alabarik izanen». Gaineratu duenez, «Arantzako eskolako langile izanda, seme-alabak eskolatik joateak pena pixka bat ematen dit, baina normala da. Handitzen ari dira eta aitzinera segitu behar dute».

Gerokoak geroko utzita, aurtengo bestetan nontsu ibiliko den bederen garbi utzi du Maizek. Eta bidenabar, herritarrei «bestetan herri iskinera hurbiltzeko» deia ere egin die: «Elkarrekin tarte polit batzuk pasatzeko probestuko dugu».



LIDERA
HORTZ KLINIKA - ESTUDIO DENTAL

INGURUNE BERRIA ZURE IRRIARENTZAT

Ortodontzia eta odontopediatria, odontologia orokorra, endodontzia, inplanteak, errehabilitazio protesikoa, hortzetako estetika, eta abar.

Al-Or: 08:00-13:00 | 15:00-20:00
Larunbatetan irekia: 08:00-13:00

Iturrunzubiko pl. 9-10 **LESAKA** | T. 722 662 478
lidera@hortzklina.es | @liderahortzklina

DESIN **ERA**

INSEKTU-HILTZEAK
ARRATOI-HILTZEAK
EGUR TRATAMENDUAK
DESINFEKZIOAK
HEGATZEN KONTROLA

Ongi pasa bestak!

T. 948 625 597
Zalain, 42 B • BERA




enean
arkitektura estudioa

943 53 08 41
www.enean.eus
arkitektura@enean.eus



KULTURKARI
Diseinu grafikoa | Publizitatea

ETXALARKO BESTAK 2025



Abuztuak 14, ortzeguna

17:30ean IX. lasterketa herrikoia. **Ondotik**, merienda parte hartzaileentzat. 19:45ean agerraldi isila. 20:00etan altxaferoa. 21:30ean herri afaria frontoian. 00:30ean dantzaldia Biziraunekin.

Abuztuak 15, ortziralea

10:30ean dianak gaiteroekin, buruhandiekin eta kankailuekin. 12:00etan meza nagusia txistulariekin. **Ondotik**, Javier Perez de Azpeitiaren organo kontzertua. 12:30ean dantzarien saioa txistulariei eta musikariekin. **Ondotik**, hamaiketakoa. 18:00etan herri kirolak. 20:00etan Bada Giro taldearen emanaldia. 23:00etan su artifizialak. 00:00etan Bada Giro.

Abuztuak 16, larunbata

10:30ean dianak trikitilariekin, buruhandiekin eta kankailuekin. 11:00etan haurrendako jokoak. 13:30ean asauttiki. 14:00etan gazteen bazkaria. 16:30ean eskalada frontoigibean. 18:00etan herri gazteen herri kirol desafioa. 20:00etan Destino Sonora mariatxiak. 00:00etan DJ Txingudi.

Abuztuak 17, igandea

10:30ean dianak txistulariekin, buruhandiekin eta kankailuekin. 11:00etan Herriko Umeen XXXVIII. Pilota Txapelketako finala. 12:00etan Aitor Danboriena Memoriala XIV. Pilota Txapelketako finala. 13:00etan sari banaketa. 17:00etan XXXI. Mus Txapelketa. 18:30ean herriko trikitilarien saioa. **Ondotik**, parte hartzaileentzat merienda. 19:30ean Saltoka euskal musika eta dantza tradizionala. **Ondotik**, larrain dantza. 20:00etan museko sari banaketa. 00:00etan Fan & Go taldea.

Abuztuak 18, astelehena

10:30ean dianak Elutxa txarangarekin, buruhandiekin eta kankailuekin. 11:30ean boteluze. 14:00etan bertso bazkari irekia Larraburua elkartean: Onintza Enbeita eta Sebastian Lizaso bertsoetan, eta Joseba Olagarai gaiak jartzen. 14:00etan Asaua ermitako zelaian. Elutxa txarangarekin joanen dira plazatik. 16:30ean tailer zientifikoa haurrentzat eta nerabeentzat. 20:00etan Trikidantz taldea. 23:30ean DJ J&J.

*Puntu Morea 19:30etik 23:30era Herriko Plazan.

Iñarreta, 4 - ETXALAR
 M. 634 77 99 78
www.etxalarescaperoom.com
info@etxalarescaperoom.com

NEUROLOGIAN eta GERIATRIAN espezializatua

FISIOTERAPIA
 · Uxue Iturria · **Ongi pasa bestak!**
Etxez etxeko zerbitzua
 ☎ 623 980 540 ✉ fisio.iturria@gmail.com 📱 @fisio.iturria

Aguirrezabal
 I G O G A I L U A K

Mugikortasun urria dutenentzat jasogailuak. Iggogailuak.

MARKA GUZTIEN IGGIGILUEN MANTENTZE LANAK

24 orduko zerbitzua

ascensoresaguirrezabal@hotmail.com
ascensoresaguirrezabal.com
 Arretxe Ugalde ind. Ezurriki kalea, 29 IRUN
 ☎ 943 612 821

HERRIKO OKINDEGIA

Ogi naturalak, ama oreaz eginak:
Espelta | Garia | Zekalea | Arto ogia

Egunero irekia: 06:00 > 13:00 • T. 627 033 975 • ETXALAR

Ainhoa Alzuguren Mitxelena
 ongi pasa bestak!

Abokatutza orokorrean
 Herentziak
 Alokalruak
 Arazo administratiboak

Zerbitzua euskaraz ematen dut.
 Deitu hitzordua hartzeko.

Legia 42, BERA
 M. 630 97 21 89
ainhoaaltzuguren@gmail.com

Etxalarko Udalak herritar eta bisitari guztiei besta onak opa dihardu

ANTZUZELAI S.L.
 Ongi pasa bestak!

BERA
 T. 948 63 13 17
info@antzuzelai.com
www.antzuzelai.com

HARGINTZA | FATXADAK | TXIMINIAK
 ZOLAK | TAILLA ARTISTIKOAK | OBRAK

USOA kooperatiba *Ongi pasa herriko bestak!*

948 635 214 605 631 244 ETXALAR

50 urte 1974-2024

Ongi pasa bestak!

Maira
Ogigintza ekologikoa

Gure harrizko errotan xehetutako Nafarroa eta Arabako zereal ekologikoekin egindako ogiak, opiltxoak eta pastak. Egurrezko labean erreak.

Garia, espelta, zekale, hazidunak, gari beltz ogiak...

Bertan enkargu bidez: **620 053 512**
Asteartetan KIMETZ-en
Ortziraletan
SUSTRAI eta BIDAIZI-n

Ongi pasa bestak!

LARRAZ
Huesos Camperos
PRODUCCIONES EN NAVARRA
en Etxalar, Los Arroz, Valle de Añón

**%100 BERTAKOA
%100 LIBREA
%100 NATURALA
%100 BENETAKOA**

T. 609 43 35 87 larraz@huevoslarraz.org

IRIBARREN
Fabrikazioa, salmenta, instalazioa

Energia aurrezteko leihorik egokiena!
Passivhaus-Etxeentzako leihoak

**BESTA ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUEGU !!**

Antsolokueta, 28
31760 ETXALAR
T./F. 948 635 071
info@ventanasiribarren.com

«Afarian herritarrek disfrutatzea da gure helburu nagusia»

UXUE ITURRIA RAZKIN ETXALARKO GAZTEA

23 urte ditu Uxue Iturria etxalartarrak eta mendia, natura eta musika ditu afizio nagusia. «Etxalar naturaz inguratua den herria da eta bertako mendiak zein txokoak aunitz gustatzen zaizkit». Trikitia jotzen du, eta «musikaz aunitz disfrutatzen dut, batez ere inguruko lagunekin zuzeneko kontzertuak ikustera joatean».

Afizioak afizio, abuztu erdialdean bestetan murgiltzeko garaia izanen du Iturriak. Ez zaio aunitz kostatuko, «ttikiatik urtero gogoz» hartzen baititu herriko bestak, «lagun zein herritarrekin aunitz disfrutatzen».

Etxalarko bestetan Iturria ez da etxean egoten den horietakoa. Bezperan egiten duten herri afaria antolatzen duen taldearen parte da. Horrekin gutti ez eta trikitilaria ere bada, eta baita Andra Mari Dantza Taldeko kidea ere. Bestetan, beraz, batean edo bertzean baina herrian gauzak egiteko ariko da.

Herri afariko antolaketa

Herri afaria antolatzen 17 neska-mutikok osatutako taldea ari dira, due la bi urte «afaria antolatzeko belau-naldi aldaketa egin ondotik». Maiatz hondarrean hasten dira antolaketa lanetan, «aurreko urtean egindako lan guztia baloratu eta aldaketa eta proposamen berriak aztertuz». Taldeko kide denen artean banatzen

dituzte egitekoak eta lehen bilera egin orduko egin behar izaten dituzte lanik handienak: «Janaria eta ontziteria enkargatzea». Hurrengo bileretan lan tiki eta espezifikokoak egiten dituzte, txartelak prestatzea adibidez, eta data hurbildu ahala, «gehiago elkartzen gara behar den guztia erosi, egin eta antolatzeko».

Jendea eskertuta

Egiteko horien artean, zailena ba-koitzak egin beharreko lanen bana-keta da Iturriaren ustetan, «denak gogoz eta urduritasun handiarekin» egoten direlako: «Afarian jende aunitz elkartzen gara eta dena ongi egotea eta herritarrek disfrutatzea da gure helburu nagusia».

Iturriarentzat xarma berezia du herri afariak, eta horrek badu motibo bat: «Urte osoan 16 urtetik gorako adin guztietako herritarrek elkartzen garen ia momentu bakarra da». Txaranga izaten dute afarian, eta horrek giro berezia osatzen du. «Gai-nera, jendea eskertua egoten da egiten dugun lanarekin, eta gulanen egonda ere besta giroan gaude!».

Dantzan eta trikitia jotzen

Bestetako egun handian dantzan aritzen da Iturria. «Adin guztietako dantzariak egoten gara talde polita osatuz». Dantzari gazteenak izaten

Etxeko sukaldaritzaz gozatu nahi baduzu, etorri eta dastatu!

Herriko Ostaketa
ETXALAR

HAMARRETAKOAK, BAZKARIAK, AFARIAK, MENUA ETA KARTA

T. 948 39 79 59 - Andutzeta, 15 - ETXALAR *Gozatu herriko bestak*



dira protagonistak, eta saioa boro-biltzeko denak ateratzen dira dantzara. Dantza saioa prestatzeko, udazkenean hasten dira entseguak egiten, helduek ekainean egiten baitute beren jaialdia. «Behin ekaineko jaialdia pasata, sanferminen ondotik, berriz ere entseguekin hasten gara».

Dantzatzeaz gain, trikitia jotzen ere aritzen da eta bestetako programan hiru ekitaldi izaten dituzte gorri markatuta: bezperan eta abuztuaren 16an auzo auzo aritzen dira musika jotzen 17an, berriz, urteroko saioa egiten dute plazan trikitilariak eta pandero jotzaileak.

Ekitaldi ofizial horiez gain, besta egiteko aitzaki ederra izaten da trikitia Iturriarentzat: «Etxalarko gazteek bazkaria antolatzen dute bestetan eta hor ere jo izan dugu bazkariaren bukaera girotzeko eta denak batera kantatzeko».

Bestak gozatzeko prest

Lanerako zein juergarako, gogotsu hartzen ditu herriko bestak Iturriak eta aurtan ere hala izanen da. Berezi, bi momentu maite ditu: txupinazoa, «herri guztia herriko plazan elkartzen garelako bestak hasteko», eta bestak bukatzeko egiten den Asaia: «Giro berezia izaten da herriarrentzat, eta handik, txaranga-ekin herriko plazara joaten gara».

Txaranga aipatuta, etxalartarrek txaranga maite dutela dio, eta bestetako egun gehiagotan egotea «primerakoa» izanen litzatekeela. Ilunabarretan izaten den musika eta erromeria taldeak aldatzea ere «eskertzen du».

Andramarien bezperan bestetarako dena prest dagoela, 11 «herriar guztiak batera disfrutatuz eta elkar errespetatuz» besta ederrak pasatzea espero du Iturriak. Hala izan bedi.



Alasta karrika · BERA | T. 948 625 472



· INGENIARITZA ELEKTRIKOA · BOLETIN INDUSTRIA
· PROIEKTU ELEKTRIKOAK · INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Ongi pasa bestak!

T. (0034) **636 617 450** Legia, 23 - BERA



- 40 logela aire girotuarekin
- 2 Jantoki: Plater konbinatuak kafetegian eta karta
- 150 lagunendako bankete-jangela | 200 ibilgailuentzako parking pribatua
- **AZKUA** erabilera anitzeko gela: kontzertuak emateko, ezkontzetako dantzaleku, konferentziak emateko,... mota guztietako ekitaldiak



N-121-A · ETXALAR · T. 948 635 000 · F. 948 635 263
www.etxalar.com | info@etxalar.com

ETXALARKO EKITATIBA eta HARITZPE OKINDEGIaren partetik BESTA ONAK PASA! GORA AMA BIRJINA!



T. 618 778 328



ETXALARKO EKITATIBA

T. 948 635 026



ONGI PASA BESTAK

Orabidea • 31795 Lekaroz • T 948 580 400

LEKAROSKO BESTAK 2025



HIRU-ITTURRI OSTATUA
Bokatak, hanburgesak, pizzak, errazioak, plater konbinatuak, menuak

Plazaburu, 7 LEKAROSKO | 948 981 825 | hiruitturri.es

Oharri: Auzoa z/g - LEKAROSKO
T.948 452 143 • 948 452 449
info@harrilan.com
www.harrilan.com

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU



HARRI LAN, S.L.
KATEKIDETZAK




ONGI PASA BESTAK!

Orabidea auzoa 18-19 km.
Tel. (0034) 948 580 427
(0034) 638 357 517



Abuztuak 21, ortzeguna

18:00etan haurren pilota partidak.
20:00etan beste hasiera ofiziala emateko txupinazoa. **Gero**, mahai muntaketa herrikoia. **21:30ean** Baztan zopak. **Ondotik**, dantzaldia Beñatek alaiturik.

Abuztuak 22, ortziralea

10:00etan dianak. **11:00etan** puzgarriak eta mahai jokoak. **14:00etan** haurren bazkaria. **16:30ean** mus txapelketa. **17:00etan** mozorro eta DJ txapelketa. **18:00etan** txokolata eta mojitoak. **19:00etan** Jexux Goñi eta Dario Trancheren arteko apustua. **20:00etan** herriko fanfarrea. **21:30ean** mutil dantzak, gaita eta larrain dantza. **00:00etan** La Txama musika taldearen kontzertua. **Ondotik**, bestearekin segitzeko DJ Fifi eta Fefa.

Abuztuak 23, larunbata

10:00etan dianak. **14:00etan** gazte bazkaria. **17:00etan** gazte jokoak. **19:00etan** dantzaldia plazan. **20:00etan** patata tortilla lehiaketa. **21:00etan** ezila jotzea. **21:30ean**

mutil dantzak, gaita eta larrain dantza. **00:00etan** Bidean erromeriarekin dantzaldia plazan eta, ondotik, DJ Uzkülüz


Abuztuak 24, igandea

10:00etan dianak. **11:00etan** meza nagusia. **12:00etan** herriko dantzarien emanaldia, mutil dantzak eta larrain dantza, eta **ondotik**, luntx herrikoia. **18:30ean** bertso jaialdia Andoni Egaña, Nerea Ibarzabal, Urko Gartzia eta Saioa Alkaiza bertsolariekin eta ondotik. **20:00etan** Bizphiru Pelau erromeriarekin dantzaldia. **21:30ean** mutil dantzak, gaita eta larrain dantza. **23:00etan**, Bizphiru Pelau erromeriarekin dantzaldia.

Abuztuak 25, astelehena

10:00etan dianak. **11:00etan** mahai muntaketa herrikoia. **12:00etan** futbol partidua institutuko zelaian. **14:00etan** bazkari herrikoia. **Ondotik**, Modestorekin dantzaldia. **21:30ean** mutil dantzak, gaita eta larrain dantza. **22:30ean** dantzaldia Modestorekin eta bestak akitzeko Gaixoa ni.

ORONÓZ-MUGAIRIKO BESTAK 2025



Abuztuak 14, ortzeguna

12:00etan txupinazoa eta horren segidan kelejira herrian barna. **14:00etan** haur bazkaria frontoian eta **15:30etik 18:30era** haurrendako puzgarriak, jokoak eta bertzelakoak frontoian. **Ondotik**, haurrendako merienda. **16:00etan** mus txapelketa Gaztelune elkartean. **19:00etan** Bentazarrea auzotik abiatuta erraldioen itzulia herrian barna. **21:00etan** Baztan zopak. Zopak jan bitartean, Peñapoteo txaranga. **00:00etan** DJ Txingudirekin dantzaldia plazan.



Abuztuak 15, ortziralea

10:00etan meza nagusia. **Ondotik**, erraldoiekin herrian barna itzulia. **11:00etan** herriko dantzarien emanaldia herriko frontoian. **12:00etan** luntx herrikoia frontoian. **17:00etan** pala txapelketako finalak. **20:00etan** Amatitan de Jalisco mariatxiak plazan. **23:00etan** Modestorekin dantzaldia.

Abuztuak 16, larunbata

Goizean, Debalde.com herriko fan-farrekin herrian barna itzulia. **11:00etan** partxis lehiaketa Gaztelune elkartean. **14:30ean** gazteen bazkari mozorro-tua. **17:00etan** Sakatu elektrotxaran-

garekin herrian barna itzulia. **20:00etan** mozorro lehiaketa herriko plazan. **22:00etatik aitzinera** Koiputretre gaua eta kontzertuak: Zaunka, Maruxak eta Miroitz. Kontzertuak akituta, DJ Xuri ta Beltz.

Abuztuak 17, igandea

11:00etan Txarutako pilotarien pilota partidak. **14:00etan** zikiro jatea frontoian eta bazkalondan bingo herrikoia. **14:30ean** mahai ingurua Joxe Anjel akordeoilariak alaiturik. **19:00etan** aizkora erakustaldia. **21:00etan** postre lehiaketa herriko plazan. **00:00etan** pintxada libre.



Carlos Garaikoetxea Etxenike
ABOKATUA

DIBORTZIOAK | HERENTZIAK
ALOKAIRUAK | ALKOHOLEMIAK

T. 948 581 468 | M. 630 354 818
Santiago, 59 2C ELIZONDO

**ONGI PASA
BESTAK!**



BIDASOA
GURPILAK - GASOLINDEGIAK
1999. URTEtik

609 446 693
948 625 663

bidasoa@neumaticosbidasoa.es

Alkaiaga Industrialdea
Ziobi kalea 6 - LESAKA



**Ongi pasa
bestak!**



**SAGARDIKO
edariak**

ongi pasa bestak!



Balangorri, 9 ☎ 948 59 20 27 • 608 46 64 60



TALLERES
olloki, S.L.
TAILERRAK

T. 948 592 339 **ongi pasa bestak!**
Poli. indus. Zozaia - Errota, Pab.1 - Zozaia-Oronoz

ERREKA-ALDE
zurgindegia

Zurgin lanak orokorrean
Teilatuak • Sukaldeak • Armairu enpotratuak

Tfnoa: 948 592 070 • ORONÓZ-MUGAIRI

**BAR
PIXTU
OSTATUA**

ORONÓZ-MUGAIRI • T. 948592472
Bertizko Jaurerriaren parean



Asteburuan eta Amabirjina egunean
eguerdian **MENU BEREZIA**

Gauean ogitartekoak,
plater konbinatuak...

Ongi pasa bestak!



«Nire herriko bestak gogo eta ilusio handiz hartzen ditut urtero»

IZARNE ETXAIDE MIGELTORENA ORONÓZ-MUGAIRIKO GAZTEA



Izarne Etxaide oronoztarrak neska «alai» eta «herrikoi» gisa definitu du bere burua eta, hortaz, herriarekiko lotura estuagatik aurtengo bestak antolatzen gogotsu ibili da bertze herritarrekin batera. «Gure herriko bestak ongi pasatzeko eta elkarren artean disfrutatzeko egunak dira, adin guzietako jendea elkartzen baikara otorduetan eta plaza inguruan». Hala ere, bestez disfrutatu ahal izateko aitzinetik eta egun horietan ere lan egitea tokatu ohi da: «Lan egitea tokatzen zaigu besta egunetan, egunero badirelako zereginak».

Etxaidek Oronoz-Mugairiko bestak, bere herrikoak direnez, urtero «ilusio eta gogo handiz» hartzen dituela ziurtatu du, baina, adinagatik eta, orain, antolatzailerak ardurak gehitzeagatik horiek bizitzeko modua aldatu egin dela nabarmendu du: «Antolatzen ez dituzunean ardurarik gabe bizitzen dituzu bestak, baina, antolatzen hasten zaren momentuan, zereginak gehitu egiten dira besta egunetan. Errate baterako, otorduetako mahaiak paratzea, edaria kopurua kotrolatzea, etab. Azkenean, bestak bertze modu batera disfrutatzen dituzu». Hala ere, arduren eta zereginen artetik gogoak eta ilusioak bide propioa harpatu ohi dutela gaineratu du: «Herriko bestak herritar guziendako bereziak direla erranen nuke, gogoz eta ilusioz antolatuak daudelako».

Bertzalde, aurtén, urtero bezala, nahiz eta bestak gogotsu eta denborara tarte zabalarekin antolatzen hasi, oztopo eta zailtasunekin topatu direla erran du Etxaidek: «Gogotsu hasten gara bestak antolatzen, baina, prozesua atzinerat joan ahala, bidean oztopo aunitzekin aurkitu ohi gara. Urte hasieran lehengo bilera egiten dugu musika taldeak eta bertzelakoak lotzen hasteko». Musika taldeak lotzea zailena izan ohi dela argi utzi du, Oronozko bestak bertze hainbat herritarrekin batera tokatzen baitira.

Bingo aurtén

Herritar guziendako egitaraua egokitzen saiatzen dira nola edo hala eta urtez urte balorazioz balorazio aldaketak eta moldaketak egin behar izaten dituzte. «Urtero gauzak hobetzen saiatzen gara, aitzineko urtean ongi atera ez zena aldatuz eta ongi atera zena mantenduz». Aurtén, adibidez, herri bazkarian moldaketaren bat egin dute: «Aldaketa bat izanen da bestetako azken egunean, azken urteetan herri bazkarian, bazkalondan, gasna bat pasatzen zen mahaiez mahai, bakoitzak gasna hartu eta bere pisua zein zen asmatzen saiatzeko. Aurtén, ez da hori egingen eta, horren partez, bingo bat egingen dugu». Azkenik, Etxaidek bestak antolatzeko orduan biltzen duten laguntza guzia eskertu du eta Oronoz-Mugairiko bestetara gomita zabaldu du.

Miren Gortari Sein
ILEAPAINDEGIA
ONGI PASA BESTAK!!
Martin Urrutia · ORONÓZ-MUGAIRI · T. 948 59 23 10

UD **USTARROZ**
DISTRIBUCIONES
Ongi pasa Bestak!!
Sagualde, 19
• 948 59 20 12 • 609 38 58 04 •
Oronoz- Mugairi

OTEIZA
ARKITEKTOAK
665 71 56 96 - 943 42 52 43
www.oteizaarquitectos.com
Apote Karrika 8 (Maskonea)
31730 - Irurita (Baztan)
Askatasunaren H. 7 - 7ºE
20004 - Donostia
@oteizaarquitectos

Ongi pasa bestak txurripuki! Aupa hi!
KATEA BIKE
Bizikleten salmenta eta konponketa.
Kanttonberri, 1 | BERA
T. 948 631 218
joxemi@kateabike.com
www.kateabike.com
BH **BERGAMONT** **MERIDA**
ORBEA **MONTY** **PINARELLO**

MUGAIRE
ZONE AUTO
Gasolindegia
Mekanika azkarra
Gurpilak
Olio aldaketak
T. 948 599 090 • 948 599 236
N-121-B errepidea • ORONÓZ-MUGAIRI
centreauto@josenea.es

AMAIURKO BESTAK 2025



Abuztuak 14, ortzeguna

20:00etan suziriak eta ezila jotzea. Ondotik, Kuxkuxtu txaranga herrian. 21:00etan Baztan zopak Kuxkuxtu txarangak alaiturik eta 01:00etan gaupasa Berpiztu musika taldearekin.

Abuztuak 15, ortziralea

10:00etan Baztan Bidasoko XXI. Ardi erakusketa eta lehiaketa, ardi gasna lehiaketa eta artisauen erakusketa, -Burgete, Breton, Comtois arrazako zaldie eta piriniotar Blonde eta Limousin arrazako behien erakusketa. 10:30ean meza nagusia. Ondotik, gaztelu taldearen emanaldia. 13:30ean mutil dantzak eta gosaria. 17:00etan artzain zakur desfilea trikitilariarekin. 17:30ean XLIV. Artzain Zakur txapelketa, Patxi Etxeberriaren XX. Memoriala. 20:30ean Los Txingones de la Rencle mariatxiak. Ondotik, mutxikoak, gaita eta larrain dantza.

Abuztuak 16, larunbata

09:00etan auzolana eta gosaria herriko elkartean. 12:00etan erraldoiak herrian barna. 14:00etan gazteen bazkaria. 17:30ean bingoa eta 19:00etan Skapaie elektrotxaranga-ekin itzulua herrian barna. 21:00etan

mutil dantzak, gaita, larrain dantza eta mutxikoak. 22:00etan Skapaie elektrotxaranga plazan. 23:30etik aitzinera, gaupasa Bide Batez taldearekin. Ondotik, DJ J&J plazan.

Abuztuak 17, igandea

11:00etan haurren esku pilota txapelketako finalak. 12:00etan haurren jokoak herriko plazan. 16:00etan haurrendako puzgarriak eta mus txapelketa. 19:00etan txokolatea 19:30ean kantaldia Bost Axola taldearekin. 21:00etan sardina eta txistorra jatea. 21:30ean mutil dantzak, mutxikoak, gaita eta larrain dantza.

Abuztuak 18, astelehena

10:30ean tuku-keta txapelketa. 12:30ean XXII. Boneta jaurtiketa txapelketa. 14:00etan zikiro jatea Beñatek alaiturik. Ondotik, DJ Txingudi.



Arropa marka f

HARA BI

ongi pasa bestak!

zu bat eta bestea ni

Baztan - Euskal Herria

komunikazioa@harabi.eus www.harabi.eus

ANZABAL

INMOBILIARIA

ZURICH ASEGUURAK

www.anzabal.com

Santiago, 15 ELIZONDO

+34 948 580 804

ONGI PASA BESTAK!

REKALDE

HARGINAK

Bainugelak · Sukaldeak · Pladur lanak

Fatxadak · Teilatuak

rekalde.harginak@telefonica.net

669 057 769

AMAIUR

erran.

erran.eus

Mendialdeko Albisteak

JAUREGI BORDA

HOTEL RURALA

www.jauregiborda.eus

ASTEBURUTAN Ostaltua, EDARI ETA PINTXO GOXOEKIN.

Hotela EGUNERO IREKITA.

Ongi pasa bestak!

Kale Nagusia, 55 | AMAIUR

T. 639 793 645

info@jauregiborda.eus

VENTA PEIO

GEHIAGO EMATEN DIZU

BERA (administraritza) 31780 Bera

IBARDIN 31780 Bera

BEHOBIA 20305 Iruñ

DANTXARINEA 31712 Urdax

LUZAIDE 31660 Luzaide

EGUNERO IREKIA, ASTELEHENETIK IGANDERA ARTE

*Abuztuaren 29a eta urtarraren 31a bitartean

Landibar

TEL. 902 210 800 / www.venta-peio.com

«Amaiurko herrian batzuk erakutsiz eta bertzeak gogoz ikasiz»

IZARO GOIENETXE KARRIKA AMAIURKO GAZTEA



KISUA
650 663 006 · manzanas@manzanaskisua.com



Etorri gure garagardo goxoak dastatzera eta etxera ere eraman ditzazkezu.

Karrika Nagusia 1 - Errotondoia etxea
31715 AMAIUR (Nafarroa) - 634 432 253



3Hiru Home

Salgai dauden pisuak bilatzen ditugu
Pisuaren balorazioa doan eta konpromisorik gabe

943 930 025 | Prudencia Arbide, 2 • IRUN | www.3hiruhome.com



JOSEPHINE'S
20 ENGLISH 13
BAZTAN

Pedro Axular karrika, 2 Elizondo

IRAKASLE NATIBOA

2025-2026 MATRIKULA IREKITA
Lehen Hezkuntza, DBH, Batxilergoa (B1, B2) eta Helduak

Christina Irigoyen ☎ 637 176 572 ✉ josephinesenglish@gmail.com



AROZ-BERRI Ongi pasa bestak!

RCA 480 JOY
RCA 480 JOY PLUS

EGUR-PROZESADOREA
ORAIN HAUNDIAGO ETA AZKARRAGO

TAFJUN
www.tajfun.com

irurita@arozberri.com - Pol. Zaldubia NA-8307, 0,8 km - IRURITA
Tel. 948 581 021 / 948 580 258 - www.arozberri.com

Erreleboa guttinaka

Bertzalde, urtez urte aldaketak gertatu ohi dira besten antolaketan, gizarteko eta inguruko aldaketekin bat. Eta nahiz eta Goienetxek denbora gutti daraman antolaketa lanean, hori da sumatu duen aldaketa handiena, berak eta bertze batzuk beraien batera ekarri duten erreleboa: «Nahiz eta poliki gertatzen ari den, erranen nuke erreleboa hartzen hasi garela eta horrekin batera egitarauan ideia desberdinak agertzen ari direla, bingoa edota musika talde diferenteak, errate baterako. Hala ere, ez da urte batetik bertze gertatu den aldaketa bat, batzuk erakutsiz eta bertzeak gogotsu ikasiz joaki baikara». Azken batean, Goienetxeren erranetan, bertzeek urte luzez egin dutena, orain, «guri tokatzen zaigu egitea», bertzerik gabe. Gainera, egitarauan aldaketa handiak izan edo ez izan, besten egiazko xarma bertze nonbaitetik heldu dela aitortu du: «Amaitarrek berek egiten dituzte berezi bestak eta herritarrendako egun bereziak izatearekin nahikoa iduritzen zait».


Auzolanean

Herritarrek elkarrekin auzolanean aritu dira aurretik ere bestak antolatzen, azken batean, hori baita Goienetxeren iritziz bestak aitzinerat ateratzeko sekretua: «Besten aitzinetik, bestetan eta ondotik ere, herritar guzien parte hartzea ezinbertzekoa da eta denak aritzen gara buru-belarri lanean, bakoitzak posible duena egiten». Eta Amaiurko herria biztanle kopuruari dagokionez nahiko ttikia izan arren, «herritar andana bat» biltzen direla ziurtatu du, horrela, adin guzietakoek eta herriko gaztetxoek ere parte hartuz: «Bestetan gaztetxoek beraien laguntza eskaintzen dute eta inplikazioa erakusten dute baztan zopetan eta zikiroan zerbitzari lanean».

Gainera, herriko bestak antolatzea batzuetan «neketsua» izan daitekeen arren, herriaren batasuna indartzen duela eta rato onak pasatzea ahalbidetzen duela aipatu du Goienetxek: «Gazte kudrilla bat biltzen gara eta giro ona izaten da gure artean. Politiduritzen zait, gainera, egunerokoan egoten ez garenekin elkartzeko aukera ematen duelako eta berezia izaten delako».



ZUGARRAMURDIKO BESTAK 2025



Faustino ETXABE tailerrak

Autoen konponketa

BESTA ON BATZUK PASA !!

☎ 948 599 038 • ZUGARRAMURDI

benta
Antton



ONGI PASA BESTAKI

0034 948 599 161 - ZUGARRAMURDI

Abuztuak 14, ortzeguna

10:00etan besta hasierako suziria eta eskea, musikaz alaiturik. 16:00etan haurren pilota partida. 18:00etan joko besta plazan. 19:30ean Matraka elektrotxaranga. 22:00etan piperrada jatea plazan. 23:00etatik aitzina Luhartz erromeria. 02:00etatik 05:00etara DJ Juan Angel eta Ane Fagoaga.



Abuztuak 15, ortziralea

12:30ean meza. Ondotik Uztaritzeko Izartxo dantza taldea plazan eta aperitifa. 17:00etan boteluze partida frontoian. 18:00etan herri kirolak. 20:00etatik 22:30era Kiki Bordatxo plazan. Ondotik DJ Xorta.

adinekoendako meza. 12:00etan Pontx pailazoa plazan. 14:00etan adinekoen bazkaria Azketan eta bazkari herrikoia plazan. 16:00etan mus txapelketa. 19:30ean mariatxiak plazan. Ondotik jokoak txosnan.

Abuztuak 16, larunbata

12:00etan II. ardi mozte txapelketa plazan. 16:00etatik 19:00etara haurrendako jokoak eta puzgarriak frontoian. 17:00etan bertso poteoa Maialen Lujanbio eta Onintza Enbeitarekin, Sarangak alaituta. 20:00etatik aitzina Joselu Anaiak. Ondotik DJ Fifi eta Fefa.

Abuztuak 17, igandea

09:00etan plater tiroketa Alkurruntzen. 10:00etan piperrada eta zikiroko haragia prestatzea Akelarrenean. 12:00etan

Abuztuak 18, astelehena

08:00etan zikiro prestatzea lezean. 12:00etan Kuxkuxtu eta Joselontxos txarangek eta gaiteroek animaturik, aperitifa. 14:30ean zikiro jatea lezean txarangekin. 19:00etan larrain dantza eta mutxikoak plazan. 20:30ean Hamarru elektrotxaranga. 23:00etan Kilimak taldea. 00:30etik 03:30era DJ Infernu. Besta finitzeko Gaixoa ni.

Abuztuak 20, asteazkena

16:00etan plater garbitzea Akelarrenean. Ondotik zintzur bustitzea.

ONGI PASA BESTAK

ANSALAS

OSTATUA • HARATEGIA • JANARI-DENDA
T. 948 599 230 • Lapiztegia • ZUGARRAURI

AZKETA
FRONTOIA
OSTATU-JATETXEA

ONGI PASA BESTAKI

Frontoia
ZUGARRAMURDI
948 599 022 • 948 599 230



GURE PLATAFORMAK DIESEL ETA ELEKTRIKOAK

GARRAIOA ETA ENTREGA ZURE BEHARRETARA EGOKITUTA



8 m - 10 m



12 m - 18 m



12 m - 16 m



12 m - 18 m




18 m / B karneta

☎ 639 103 305

✉ plataformasbidaso@gmail.com

📍 Alkaiaga Pol. Ziobi, 15



JUANJO MIHURA

IGELTSERITZA-ALBAÑILERÍA

ERAIKUNTZA OROKORREAN

ongi pasa bestak!

Urbide Etxea
31710 Zugarramurdi
Nafarroa

T. 607 750 425
j.mihura@hotmail.com

KATTALIN
JATETXEA

Ongi pasa bestak!

Lapiztegia, 6
ZUGARRAMURDI

T. 948 599 146 · 948 599 009

zeramikaren
Benta
venta du carrelage

asteartetik ostirala arte:
09:00-12:30 / 14:00-18:30

larunbata:
09:00-12:30 / 13:30-18:00

ongi pasa bestak!

Lori venta
31710 | Zugarramurdi
Tel.: 00 34 948 59 90 24
Mug.: 0033 615 11 52 23
info@ventaducarrelage.com
www.ventaducarrelage.com

«Jende handia etortzen zen zikirora, baina emakumeek ezin genuen»

DOLORES IRAZOKI ETXENIKE 88 URTEKO ZUGARRAMURDIARRA

Herriko bestekin harreman berezia du Dolores Irazoki Etxenike, 88 urteko zugarramurdiarra. Sortzez Lapitxekoa bada ere, tikitatik Iriartean bizi da, lezeetatik hurbil eta bestetako harat-honatak segitzeko leku egokia da etxea. Gainera, garai batean esnetegia izaten zenez, «frigorifiko erraldoi bat izaten genuen eta bertan gordetzen genituen zikiroko piperrada, baratxuriak, tipulak... baita soberan gelditutako haragiak ere... Beti zikiroa ausarki egiten zen, nahia-go izaten zuten soberan gelditzea eta hori gurera ekartzen zuten, eta gero herriko jendea etortzen zen zikiro puska baten bila edo piperrada eramatera. Garai hartan ez zen frigorifikorik izaten etxeetan eta «guk haizearekin ibiltzen zena izaten genuen, eta zingarra ere ekartzen zuten aunitzek, bertan kontzen genituen zintzilika, ongi idortzeko. Gurina aunitz egiten genuen esnetegian, eta esne gaina bereizteko tresna ere izaten genuen, eta gero gaina eramaten genuen Elizondoko Malkorrara, baita Iruñeko gozotegietara ere... Gasna ere egiten genuen, baina guttixeago», aipatu digu Irazokik.

Emakumeak zikirora ez

Dolores Irazokik gogoan duenez, «garai batean, gizonak bakarrik joaten ziren zikirora, emakumeek ez



genuen aukerarik, ez lanera, ez bazkaltzera... bakar-bakarrik salda eta piperrada jastatzera, hori zen aitzakia. Eta gero etxera. Ez dakit xuxen noiz hasi ziren emakumeak zikirora joaten, ez da urte aunitz. Errefetetan ere lehen gizonezkoak bakarrik joaten ziren, baina gero familia joaten hasi zen, seme-alabak joaten ziren eta gu biloba tikiakin».

Ahate jokorako ere Iriarteko terrazatik zintzilikatzen zen soka, trofeoa ere terrazan ematen zuten, bertan bipiltzen zituzten ahateak... «Ur beroarekin barreño handi bat izaten genuen eta han bipiltzen genituen ahateak, lan handia zen. Gero, jendea aspertu zen horretaz ere eta ahatea atxematen zuenak bere horretan,

ONGI PASA
BESTAK!

Muga Gabe

Raul Tarancon sukaldari bilbotarraren
eskutik **artisaу sukaldaritza**

www.restaurantemugagabe.com

Asteazken zehar: 12:00-15:30
Ortzirale eta larunbatetan:
12:00-15:30 | 20:00-22:30
Astearteetan itxita

848 992 943



bipildu gabe, eramaten zuen etxera. Lehenbizian, gazte ginenean, ahatea bizirik izaten zen eta niri pena handia ematen ninduen, lepotik bihurrikatzen zuten eta lehenbiziko tiralditik burua kentzen ez bazuten, ahateak sufritu egiten zuen, nik ez nuen ikusten ahal. Gerora hasi ziren hila ematen». Ahate jokoa pasatzen zelarik, pegarra jokoa ere izaten zuten, «begiak tapatu eta makila batekin urez betetako pegarra jo behar izaten zen. Jendeak irri puska egiten zuen pegarra hausterakoan, ura burutik beheiti, huraxe zen saria! (kar-kar)». Bestetako hondar eguna izaten zen handiena, «jende aunitz etortzen zen Saratik, Donibanetik, Elizondotik... kanpoko jende handiak etortzen ziren zikirora, baina emaztekiak ez ziren joaten ahal».

Andremari goizeko aurorak

Garai batean Andremari eguneko goizean, apezarekin batera, neskak aurorak kantari ateratzen ziren, «aitzineko egunetan entsaiatzen aritzen ginen eta Andremari egunean, argia hasi baino lehen ibiltzen ginen ka-

rriketan kantari, goizeko bortzetan edo beranduenez, seiak izanen ziren. Leku jakin batzuetan pausalekuak izaten genituen, bortz lekutan gelditzen ginen, eta han ere kantatu egiten genuen. Ibilaldia finitzen genuelarik, elizako dorrera goiti joaten ginen eta han ezkila jo, batto ttika zen eta hartzeko zaila, baina bertzearen mingaina hartu eta *kan-kan-kan!* Erne ez zegoena ernatzen genuen». Bestetako eta inauteetako eskerako oraindik ateak zabaltzen ditu Iriarteak: «Zer eginen dugu ba! Usaia horrela da, baina galtzen ari da. Herria ttikitzen ari da eta etxe guttitan hartzen dituzte, baina nik gustura hartzen ditut gazteak. Andremari bezperan mahai handi bat paratzen dut atearen kafea eta edari eta jateko pintxo batzuk ematen ditut». Bitxikeria moduan, Dolores Irazoki urtero besta hasierako ezkila jotzea «erretrasmitzen» omen dio telefono bidez herritik kanpo bizi den zugarramurdiar bati. «Bai, halaxe da, ilusioa egiten dit eta telefonoa hartzen dut, berak ere aditzeko, horrela tirria sartzeko eta etortzeko lehenbailehen».



ZUGARRAMURDIKO EMAKUMEAK 1960. HAMARKADAN, TARTEAN DOLORES IRAZOKI, ZIKIROKO SALDA DASTATZEN.




**Zugarramurdiko Udalak
besta zoriontsuak opa dizkizue
herritar eta bisitari guztiei!**

Ongi pasa bestak!

Graxiana

Jatetxea - Aterpea - Nekazal etxea

ZUGARRAMURDI
675 711 498 - 699 93 10 72
info@graxiana-aterpea.com

BERRI S.L.

TXIMISTINDAR

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK






Ongi pasa bestak! 948 63 14 52 / 639 60 80 34 / 639 56 59 65

Zalain Ind., 42 Bera.

Ongi pasa bestak!

Montxo

JATETXEA - ERRETEGIA

Tradizioa, historia eta gastronomia

asadormontxo.com



Axular karrika, 12
31711 Urdazubi-Urdax (NAFARROA)
+34 848 85 00 21
info@asadormontxo.com

Giltzak eta aginteak
AUTOA - MOTOA - KAMIOIA
Giltzak galdu badituzu, guk lagunduko dizugu



IBARGOYEN
SUMINISTROS CARROCEROS






www.ibargoyen.net ☎ 943 616 587
Molino Errepidea, 21 - 20305 - IRUN

ZUBIETAKO FESTAK 2025



Abuztuak 14, osteguna

19:00etan pala txapelketaren finala
20:00etan herriko txistulariak eta trikitilariak. 21:00etan zopak herriko ostatuan. 00:00etan joaldunak eta arbola altxatzea. Ondotik, Iratzar musika taldearekin erromeria.

Abuztuak 15, ostirala

11:00etan meza nagusia. Gero, txistulariak, joaldunak, erraldoiak eta buruhandiak. 12:30ean omenaldia aurten 85 urte eta 100 urte bete edo beteko dutenei. 13:30ean aizkora eta harri altxatzea: Ugaitz Mugertza eta Eneko Otaño, eta Estefaria eta Imanol. 18:00etan Erreka Dantza Taldearen emanaldia. 19:00etan dantaldia Auspolariek musika taldearekin. 23:00etan DJ Txingudi.

Abuztuak 16, larunbata

12:00etan Doneztebeko haurren dantza taldea. 13:00etan herriko pilotarien arteko pilota partidak. 16:00etan mus txapelketa herriko ostatuan. 16:00etan haurrentzako jokoak. 19:00etan bertso saioa: Aitor Mendiluze, Sustrai Colina eta Nerea Ibarzabak. Gaiak jartzen Bittori Elizalde. 20:00etan eta arratsean erromeria Biziraun taldearekin.

Abuztuak 17, igandea

11:30ean haurrentzako jokoak Disni-ruñarekin. 14:00etan haurrentzako eta gazteentzako bazkaria plazan. Gero, jokoak. 16:00etan plateritiroa. 18:00etan patata tortilla lehiaketak. Gero, tortilla jatea plazan. 20:00etan DJ Txingudi. 22:00etan zezensuzkoa. 00:00etan DJ Txingudi.

Abuztuak 18, astelehena

12:00etan emakumezkoen pilota partidua. 14:00etan herri bazkaria. 17:30ean mutil gazteak txarangaherrian. 20:00etan dantaldia Modestorekin. 22:00etan zezensuzkoa. 22:00etan xingar eta tortilla jatea estalpean. 00:00etan arbola altxatzea.




Arrate Estetika Zentroa


Zatoz eta probatu! *Ongi pasa fiestak!*

948 450 286

Aurpegiko eta gorputzeko tratamendua
Masajeak | Laserra | Elektrikoa | Depilazioa
Makillajeak | Betile liftina | Manikura eta pedikura | Produktu salmenta pertsonalizatua
Opari txartelak...



GOIZUETAKO FESTAK 2025



Abuztuak 10, igandea

08:00etan aurorak Umore Ona eta Ozenki abesbatzaen eskutik.

Abuztuak 14, osteguna

12:00etan txupinazioa buruhandi eta erraldoiekin eta txarangak alaituta. **12:30ean** gazteen arteko herri kirolak. **12:30ean** txosna irekiera. **14:30ean** gazteen bazkaria ikastolan. **17:00etan** umeentzat jokoak. **18:30ean** umeentzat merienda. **18:30ean** Peñaren irteera Igandea Txarangarekin. (zuri-gorritz eta blusa berdea jantzi-ta). **20:00etan** gazteen txupinazioa gaztetxean. **20:30ean** Goitikiren bingoa. **00:00etan** dantzaldia Gabezin erromeria taldearekin. **00:00etan** DJ Infernu txosnan. **Ondoren**, Igandea txaranga.

Abuztuak 15, ostirala

07:00etan diana dultzaineroekin. **07:50ean** gaupaseroen argazkia txosnan. **08:00etan** entzierroa Lasturko zezenekin. **10:30ean** meza eta prozesioa. **11:00etan** umeentzat toka txapelketa. **12:00etan** goxokiak ba-

natuko dituzte plazan. **12:00etan** pilota partidak. Nesketan, Sagardui eta Legarreta, Galardi eta Sotilen kontra ariko dira. Segidan, lehenbiziko mailako afizionatuen partidak izanen dira: Igoa eta Sotil, Mata eta Landaren kontra. **12:30ean** buruhandi eta erraldoiak dultzaineroekin. **13:30ean** Igandea txaranga. **18:30ean** herri kirol saioa. Proba mistoa osatuko dute Arkaitz Etxebestek eta Aratz Mugerzak. Aizkoran, txingekin, lasterka eta trontzan ariko dira. Harriarekin Udane Ostolaza eta Lierni Osa. **19:30ean** bertso saioa: Maialen Lujanbio, Aner Peritz eta Sustrai Colina ariko dira kantuan eta Zerain gai jartzaile. **21:30ean** DJ Mikeltxi. **23:00etan** bingo musikatu txosnan.

Abuztuak 16, larunbata

11:00etan apar festa eskolan. **11:00etan** toka txapelketa. **12:00etan** sagardo dastaketa. **12:30ean** Igandea txaranga. **18:00etan** herriko dantzarien emanaldia. **19:30ean** Igandea Txaranga. **20:00etan** Goitikiren bingoa. **23:00etan** Lenbailen taldearen



FELIX LOIARTE



COVIRAN
ARANTXA ETA JUANITO
FESTA ONAK IGARO!!
T. 616 17 85 44 • GOIZUETA

IGELTSERITZA - ERAIKUNTZAK
Javier Zabala
Kale Nagusia, 66 T. 948 51 42 28
GOIZUETA M. 679 47 98 93
construcciones.javierzabala@gmail.com

Oxeguarda
ostatua
Ongi pasa festak!
T. 948 514 019 • Nagusia, 34 • GOIZUETA

ZUBIMUXU aterpea
Goizueta
Sukaldea erabilgarri - 30 plaza
Biko, seiko eta hamarrekoko gelak - Literak
www.zubimuxu.com Herriko plazan 663 85 85 02

kontzertua gaztetxean. **00:00etan** Lasturko zezenak. **00:30ean** dantzaldia Laket taldearekin. **Ondoren**, Igandea txaranga. **01:00etan** DJ Adarrak gaztetxean.

Abenduak 17, igandea

09:00etan Irumaita txaranga. **11:00etan** pilota partidak Umore Ona pilota eskolako ikasleen eskutik. **12:30ean** buruhandi eta erraldoiak trikitilariekin. **13:30ean** Igandea txaranga. **14:00etan** umeen bazkaria. **17:00etan** XX. Mus txapelketa Ixkibi kanpinean. **16:30etik 19:30era** umeentzako puzgarriak eta ur txirrista. **19:30ean** Igandea txaranga. **20:00etan** Goittikiren bingoa. **20:30ean** dantzaldia Txiki Festa Show taldearekin. **22:30ean** zezensuzkoa.

Abuztuak 18, astelehena

11:30etik Umore Ona peñaren irteera txarangarekin. **12:30ean** pilota partidak. Lau eta erdian, lehenengo mailako afizionatuen partida jokatuko dute Muruak eta Ramirezek. **Segidan**, Goizueta eta Aranoren arteko partida izanen da: Apezetxea eta Apezetxea, Olaizola eta Lizeagaren aurka ariko dira. **Ondoren**, Igandea txaranga. **14:30ean** Umore Ona peñaren bazkaria. **Ondoren**, peñaren kalejira txarangarekin. **18:30ean** Lasturko zezenak. **20:00etan** Goittikiren bingoa. **00:00etan** bukaera ekitaldia. **00:30ean** dantzaldia Iratzar taldearekin. **Ondoren**, Igandea txaranga.



FELIX LOIARTE



FELIX LOIARTE



1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Tafalla, 13 • IRUÑEA • 948 230 634

Albornozak
Mantelak
Kuxinak
Edredoi nordikoak
Ohe estalkiak
Maindireak
Toallak
Edredoi-azal nordikoak

«Txarangarik gabeko festak ez nituzke ikusi nahi»

URKO APEZETXEA LUJANBIO GOIZUETAKO GAZTEA



UTZITAKO ARGAZKIA

Festetako astea «urteko asterik hoberenetakoa» dela esaten duenak, zalantzarako tarte gutxi uzten du. Urko Apezetxea Lujanbioren hitzak dira eta lepoko zapia eta blusa berdea prest eta Gazteen Eguneko kamiseta jasotzeko alarma dagoeneko jarria izanen du.

Festen antolaketa lanetan aritu da azken hilabeteetan, «festa batzordean, Gazteen Egunean eta gaztetxeko ekin-tzetan». Ordu batzuk eskaini dizkiete prestaketa lanei eta horregatik, festak «ailegatzeko gogoz» egoten direla dio.

Horretaz gain, badute beste ohitura bat: «lau lagun artean pankarta bat egiten dugu azken urte hauetan». Beste urtetan, pilota txapelketa ere antolatu izan du, «baina aurten inork ez zuenez parte hartu nahi, bertan behera uztea erabaki dugu».

Formula berezia

Festetako bost egunetan huts egin gabe ibiltzen da bateko zein besteko ekitaldietan. Dena den, indarrak zertxobait berreskuratzeko, zenbaki bakoitien eta bikoitien formula erabiltzen du: «abuztuaren 14an, 16an

eta 18an juerga egiteko aprobetxatzen dut, normalean eta abuztuaren 15a eta 17a ajea pasa eta lagunekin lasai egoteko izaten dira». Eguneko zein gaueko giroan, «bietan ongi» moldatzen denez, oilarrekin eta gautxoriekin biekin ibiliko da kantuan.

Abuztuaren 14an indartsu hasten dituzte festak: «Gazteen Eguna, txupinazoa eta peñen irteera ospatzen ditugu eta lehenbiziko aldiz pankarta ateratzen dugu». Abuztuaren 16an kuadrillako bazkaria izaten dute eta horixe da beretzat festetako egunik politena: «kuadrilla guztia juntatzen gara bazkaltzeko eta kanpotik jende asko etortzen ez denez, elkarrekin juerga egiteko aukera izaten dugu, batekin eta bestearekin bidean galdu gabe». Biharamunean indarrak hartu eta «abuztuaren 18an peñen bazkariarekin» borobiltzen dituzte festak.

Txarangaren erritmora

«Rocka edo euskal musikarekin» gus-tura ibiltzen omen da festan, baina behin giroan sartuta, «edozein musikarekin moldatzen» dela aipatu du. Hori bai, Goizuetako festak doinuren batekin lotu beharko balitu, bere buruan ez lirateke faltako tronpeta, saxofoi, bonbo edo txindatak: «txarangarekin egiten ditugun itzuliak dira niretzat festetako ekitaldirik politenak». Haur, gazte eta heldu, «herri guztia animatzen da txarangarekin eta oso giro berezia sortzen da». Horregatik, argi dio: «txarangarik gabeko festak ez nituzke ikusi nahi».

Aurten behintzat, ez da halakorik gertatuko eta Igandea edo Irumaita txarangarekin izanen du gozatzeko aukera. Pankarta astinduz, blusa gerrira lotuta eta dantzari, kantuar eta kontutan ibiltzeko aukera izanen du. Festen bukaeran galdetu beharko zaio beste urtetako formula aplikatu edo azken orduan bueltaxka zirudiena luzatu eta egun bakoitiak, bikoitien pareko izatera pasa ote diren.

iskibi kanpina
GOIZUETA
Tel. 0034-948514277
Leitza-Hernani NA-4150, km 18
31754 GOIZUETA (NAFARROA)
...ta giro atsegina
www.iskibi.com

MAI
OKINDEGIA - GOZOTEGIA
Jai zorientsuak opa dizkizuegu!
K. NAGUSIA · GOIZUETA · 948 514 242

MAINGENEA
BASERRIKO
PRODUKTU EKOLOGIKOAK
Elikagaiak gizarteratzen
Ingurugiroa zaintzen
Lanpostuak sortzen
Herri ttikiak bizkortzen

ONGI PASA FIESTAK!



Goizuetako Udalak
festa onak
opa dizkizue
goizuetar eta
bisitari guztiei

DONAMARIAKO BESTAK 2025

DONAMARIAKO
HERRIKO OSTATUA

T. 948 45 08 90
@donamariko_ostatua

Ongi pasa bestak!



ukulu
inmobiliaria

Lekueder karrika 16, Sunbilla
667 547 445 | xuban@ukulu.es



Ayuntamiento de Donamaria
Donamariako Udal

Abuztuaren 14tik 18ra

*Besta zoriontuak opa dizkizue
herritar eta bisitari guztiei*



*Berdintasunean eta errespetuan
oinarritutako besta batzuenatik*

Abuztuak 14, ortzeguna

18:30ean herri kirolak: lasto altxatze erakustaldia eta Nafarroako II. Mailako Aizkolari Txapelketako kanporaketa. 20:00etan txupinazoa. Olatz Garmendiak mojak botako du. Ondotik herriko trikitilarietako kalejira. 21:00etan zopak herriko ostatuan. 00:30etik 05:00etara DJ Bull.

Abuztuak 15, ortziralea

09:00etan diana Baztango gaitarietako. 11:00etan meza. 12:00etan kalejira Baztango gaitarietako eta erraldoietako. 12:15ean omenaldia 80 urteko herri-tarrei. 12:30ean Doneztebeko dantza eskolako dantzarien emanaldia. 17:00etan herriko pilotarien partidua. 18:30ean binakako pilota partidua: Elizalde-Garmendia, Canabal-Merino II.aren kontra. 20:00etatik 21:30era Roberto&Jessi mariatxien emanaldia

Abuztuak 16, larunbata

10:00etan herri krosa (Izena 09:30ean). 11:30ean herri kirolak. 13:00etan paela prestatzea eta jatea, moztarro lehiaketarekin. 17:00etan gazteen jokoak. 20:30etik 21:00etara pintxo afaria. 22:00etan Asamblea de Majaras taldea. 23:30etik aitzinera DJ Endara.

Abuztuak 17, igandea

11:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 18:00etara puzgarriak. 16:00etan mus txapelketa. 18:00etan txokolate jatea. 19:00etan patata tortilla eta postre lehiaketak. Ondotik afaria. 21:30ean lehiaketen sari banaketa. Afalaitzine-tik eta ondotik dantzaldia Ansorregi eta Larrañagarekin.

Abuztuak 18, astelehena

14:00etan herri bazkaria Saioa Alkaiza eta Sarai Robles bertsolarietako eta Aitziber eta Aritz trikitilarietako. 20:00etatik 22:00etara dantzaldia Trikitiens taldearekin. 22:00etan afaria plazan. 23:00etatik 01:00etara dantzaldia Trikitiensekin. 01:00etan Gaixoa ni.



Garmendi
TX
powered by PinkmanBikes

ONGI PASA BESTAK!

KONPONKETA INTEGRALA,
SALMENTA ETA ALOKAIRUA
www.garmenditx.com



Rosa Seminario, 13 | DONEZTEBE
660 05 54 94



«Herritarrek bestaren parte egiten gaituzte eta berezia izaten da»

OLATZ GARMENDIA ALTUNA DONAMARIAKO KOMENTUKO MOJA

«Azpeitiar nafarra» dela erranez aurkeztu du bere burua Olatz Garmendia Altunak, eta «emakume xumea» eta «bihotzez eta jatorriz euskalduna» dela gehitu nahi izan du. 19 urterekin sartu zen moja, eta 55 urte daramatza Donamariako karmeldarren klausurako komentuan. Aitortu duenez, «gustura» dago, «maite dugun eta gaituzten herri polit batean».

Komentuan bertan «aldaketa aunitzen» lekukoa izan da urteotan: «Ni etorri nintzenean, adibidez, oraindik lokutorioetan hesiak genituen, arropekin dena estaliak ibiltzen ginen... Orain, ordean, ez dugu hesirik eta buruko zapiarekin ibiltzen gara, baina ilea ikusten zaigu, gonak ere motzagoak dira... Ez hori bakarrik. Jendearekin hartu-eman hurbilagoa dugu, jende gehiago etortzen da, bertze komentuekin harreman gehiago dugu, heziketarako denbora gehiago dugu eta horretarako kanpora ere ateratzen gara...». Baina aldaketa gehiago ere izan dira, eta bertzeak bertze, moja kopurua aldatu da: «Gaur egun hamahiru gara, eta lehen gehiago ginen. Erreleboa falta da. Gazteenak 47 urte ditu. Zaharrak hiltzen ari dira eta ez da berririk etortzen».

Bistakoa da Garmendiak donamariarrei dien estimua, eta maiz aipatu du haiekin duten «harreman ona». Gainera, hartu-eman hori urte osoan mantentzen dutela kontatu du: «Urteberri egunean haurrak urtatsak eskatzera etortzen dira, inauterietan normalean ere bisita egiten digute, igandetako mezara ere hurbiltzen dira, haurrak jaiotzen direlarik ezagutzeko ekartzen dizkigute, ezkonduetakoan eta hurbilekoak baldin badira etortzen dira, Eguberrietako jaiotza ikustera ere etortzen dira, herriko bestetan ere bai...». Eta aurtien gehiago ere bai, protagonismo berezia hartuko baitu azpeitiarrak Donamariako beste hasiera emanen dien txupinazoa botaz. Kontent eta eskertuta mintzatu da gonbita egin diotelako. Aitortu du «sorpresa handia» izan dela, baina aldi



berean «berezia eta polita»: «Gainera, aurtien bete dira 65 urte karmeldarrak Donamariara etorri zirela».

Hala ere, ez da hori mojen bestetako hitzordu bakarra izanen: «Bestetako azken egunean, herri bazkari egunean, bazkalondoan, herritarrak bertsolariekin eta musikariekin bisitan etortzen zaizkigu. Jatekoa ere ekartzen digute, eta dantzan, bertsotan, kantatzen... aritzen gara. Bestaren parte egiten gaituzte eta momentu berezia izaten da». Eta hain zuzen horregatik eta urte osoan hartzen duten tratuatik «eskerrak» eman nahi izan dizkie, baita «ETBk lau igandez gure komentutik meza eman duenean hurbildu den jende guziari» ere. Jakitun da «mezetara gero eta jende guttiago» joaten dela eta eliza ere bide beretik ikusten du: «beheraka»: «Eliza erakunde handia da, eta hain handia izanda, konplikatu da elkarrekin aitzinera egitea, munduaren alde batean eta bertze aldean bizi garenak hagitz ezberdinak garelako». Hortik haratago, «atzerakoi» hitza ere aipatu du: «Begira emakumeak nola gauden elizan! Ez daukagu apenas tokirik. Hierarkia guzia gizonezkoena da». Eta hori aldatzea garrantzitsua iruditzen zaio: «Gure bizitzaren muina hor dago, hori ez da galduko, baina elizak ez badu aitzinera egiten eta gaur egungo gizartera egokitzen ez bada, bazter batean geldituko da, hutsik».

ONGI PASA BESTAK!

sasoi

www.sasoi.eus
Leku-eder, 16 · 31791 SUNBILLA
T. 948 451 596 | info@sasoi.eus

ELIZAGA MUGIKA SL

conselmu
CONSTRUCCIONES

ongi pasa bestak!

Etxebizitzak eraikuntzak
Teilatu berriztatzeak
Mota guztietako erreformak

T. 636 815 926 | conselmu@hotmail.com
www.construccioneselizagamugika.es

IPAR ENERGIAK

ENERGIA BERRIZTAGARRIETAN ESPEZIALISTAK

Aholkularitza | Instalazioa Mantentzea
Zerbitzu teknikoak

Ongi pasa bestak!



- Pellet-berogailu eta galdarak.
- Aerotermia bidezko berokuntza, hozkuntza eta etxeko ur beroa (EUB).
- Biomasa bidezko berokuntza eta EUB.

T. 680 78 58 82
www.ipar-energiak.com

Donamaria – Nafarroa


EZKURRAKO PESTAK 2025

EZKAIN eraikuntzak S.L.



ongi pasa
pestak!!

Lizarraga, 3 • LEITZA
M. 650 910 868 • 650 910 867
T/F. 948 610 956 • 948 610 956
ezkain1@gmail.com



Abuztuak 16, larunbata

10:00etan diana. 10:30ean mus txapelketa. 11:00etatik 13:00etara karts eta puzgarriak. 16:30ean mus txapelketako finalerdiak eta finala. 15:00etatik 18:00etara karts eta puzgarriak. 19:00etatik 22:00etara dantzaldia Fideleen eskutik. 19:00etan pintxo potea. **Gauean**, zezensuzkoa.

Abuztuak 14, osteguna

18:00etan pilota partidak. 18:30ean frontenis partidak eta txokolate beroa banatuko dute. 20:00etan txupinazoa herri bazkariko lantaldearen eskutik. 21:00etan herri afaria Barranka jattetxean, Irati eta Ekiñe trikitilariekin.

Abuztuak 15, ostirala

10:00etan diana. 11:00etan meza. 12:30ean herri kirol erakustaldia: Aizkoran: Eneko Otaño eta Julen Garbirondo, Ibai Soroa eta Arkaitz Etxebesteren aurka. Harriarekin Xabier Aranburu *Guzta*. Arpanan, Ainhua Iraizoz eta Maria Iraizoz, Aurkene Aroka eta Uxue Andorregiren kontra. 18:00etan pilota partidak. **Arratsalde** eta **gazez**, DJ J&Jrekin dantzaldia.

Abuztuak 17, igandea

10:00etan diana. 10:00etan haur eta helduentzako krosa eta jokoak. 11:00etan pilota partidak. 18:00etan aizkora erakustaldia. Vicente eta Ezpeleta, Larrañaga eta Txikia IV.aren kontra ariko dira. **Arratsaldean**, dantzaldia izanen da Itxasoren eta Gorkaren eskutik. **Gauean**, su artifizialak.

Abuztuak 18, astelehena

10:00etan diana. 13:00etan kantu zaharrak Aitorrekin 14:00etan herri bazkaria. 16:00etatik 17:30era musika DJ J&Jrekin. 18:00etan Los Tenampas y El Mariachi taldearen emanaldia. 22:00ak arte dantzaldia eta **ondoren** pesten amaiera.



**EZKURRAKO
UDALAK**

*Pesta zoriontsuak opa dizkizue
herritar eta bisitari guztiei*

BETILAN
Eraikuntzak



**ERAIKUNTZA BERRIAK
ZAHARBERRITZEAK
TEILATUAK
IGELTSEKITZA OROKORREAN**

Ongi pasa
pestak!!

Toki-Ona Etxea • EZKURRA • Tel.: 649403320 • betilansl@gmail.com

«Mostradorearen atzeko aldean ere goza liteke pestetan»

JOSE LUIS GOROSTIAGA GARZIARENA BARRANKA



UTZITAKOA

Herri bazkariko lantaldea aukeratu dute aurten Ezkurrako txupinazoa botatzeko eta bertako kidea da Jose Luis Gorostiaga Garziarena. Ilusioz eta pozik hartu du gonbidapena: «ez genuen espero eta ilusioa egiten du herriak zugarri pentsatzeak». Trukean deus eskatu gabe, «herri txikietan herriarrek inplikatu beharra» dutela uste du: «herriarentzat egiten dugun lan bat da, batzuk auzolanean beste lan batzuk egiten dituzte, guk sukaldekoak eta ahal dudan bitartean halaxe segitzeko asmoa dut».

Hamabi laguneko kuadrilla aritzen da festetako herri bazkaria mimos prestatzen: «parrillan, zerbitzatzen... eta bi lagun garbiketan». Azken horiek dira bere ustez garrantzitsuenak: «lan izugarria egiten dute. Guk 150 lagun platerak altxatu eta bigarren tanda hasterako prest izaten dituzte».

Barranka ostatuan jaio, hazi eta hezia, sukალdea eta ostalaritza dira bere bizia: «nire aitona 1909ko irailan ireki zuen Barranka ostua eta geroztik, pandemian baino ez ditugu itxi atek, hiru hilabetez». Sukaldean da bere habitatu naturala eta aipatu du ama izan zuela irakasle: «txikitatik gustatu izan zait sukaldeko giroa. Egun batean uzten zidaten arrautza frijitzen, hurrengoan laguntza eskatzen zidaten zerbait puskatzeko... eta horrela hasi nintzen pixkanaka-pix-

kanaka ikasten». Errezeta liburuen beharrik gabe, senak agintzen diotari segika prestatzen ditu orain jatekoak: «jendeak galdetzen dit jakiren bati zer botatzen diotan eta ez dut jakiten zer erantzun. Gaur botako diot tipula gehixeago eta hurrengoan gutxiago». Ez omen du «neurri zehatzetan» ibiltzeko balio: «beti begiz egin dut, momentuan iruditzen zaidan bezala». Eta argi du zein den plater bikainak prestatzeko sekretua: «egiten ari zarelarik probatzea».

Aitortu du ez direla garai onak ostalaritzarako: «baina behar duen tokian baldin bazaude eta gauzak txukun eginez, badago ostalaritzatik bizimodua ateratzeko bidea». Berak argi du: «herri txikietarako taberna bizia da». Horren adibide argia eman du: «baditut inguruko herrietatik etortzen diren bezeroak eta larunbatetan bakarrik ikusten dute elkar. Ez badute toki bat elkartzeko, harremanak galdu eta oso bakarti bihurtzen zara». Hala ere, erreleboa lortzea ez da erraza: «etxeko seme edo alaba batek ikusi du zer dagoen eta gehienetan ez du nahi beretzako. Gaur egungo bizimodua eta ohiturak ez dira ezkontzen ostalaritzarekin».

Beste garai batekoa delako, akaso, berak lortu ditu biak ezkontzea, baita pestetan ere: «mostradorearen atzeko aldean oso ongi pasatzen dut. Batzuekin barre, besteekin kanta, aspaldian ikusi gabeko herriarrek elkartzeko aukera... bakoitzak nola hartzen duen ere izanen da». Tarte-ka, hartzen du pestarako tarte ere, «aizkora apustua denean, frontoira ihesi joan eta zerbait ikusten dut eta mus txapelketan ere parte hartzen dut».

Ezkurrako festak maite dituela nabari da eta bertako herri giroa azpimarratu du: «egunez gehiago bizitzen da festa orain eta niretzako hobe da horrela, lehentxeago joaten bainaiz ohatzera». Gonbidapena ere egin du: «etorri daitezela, gu hemen egonen gara tarte polit bat pasatzeko gogoz».

ONGI PASA PESTAK!

EZKURRA HOSTAL RURAL

JATETXEA • TABERNA
PARRILLA • TERRAZA
OTORDUA

Jose Luis Gorostiaga • BARRANKA

www.hostalezkurra.com • info@hostalezkurra.com

Nagusia, 4 • EZKURRA
T. 948 615 098 / 606 301 899

LOHITZYNE
eraikuntzak

ETXEAK, TEILATUAK eta ERAIKUNTZAK OROKORREAN

ONGI PASA HERRIKO PESTAK!

Tfnoa: 948 615 110
Mug: 699 461 386
Eguzkialde etxea
31749 EZKURRA



ENERITZ IRAOLA

ARESOKO PESTAK 2025

Abuztuak 14, osteguna

12:00etan frontenis txapelketa mistoko finala. **Arratsaldean**, umeentzako merienda eta jolasak, guraso elkartearen eskutik. **18:30ean** txupinazoa botako dute Jaione Olazabalek, Jon Gurrutxagak eta seme-alabek. **19:30ean** Aresoko umeen kontzertua. **21:00etan** guraso elkarteak afaria karpan. **Ondoren**, bingoa.

Abuztuak 15, ostirala

09:30ean diana txistulariekin. **11:00etan** meza. **Ondoren**, hamaitakoa herritar guztientzat karpan. **13:00etan** Ados elkarteak antolatutako V. Plazaz plaza txapelketako pilota partida. **18:00etan** Aresoko dantza taldearen emanaldia. **Ondoren**, garagardo dastaketa. **21:30ean** afari autogestionatua. **23:00etatik 02:00etara** Dj Zaze.

Abuztuak 16, larunbata

09:30ean diana trikitilariekin. **11:00etan** kuadrilla bakoitzeko bi kidek karpapa joan beharko dute bazkarirako mahaiak eta edariak prestatzera. **12:00etan** kuadrillen kalejira Joselontxos txarangarekin. **15:00etan** kuadrillen arteko bazkaria karpan. Bazkalostean, jokoak eta Aresoko ingurutxoan plazan. **Gero**, DJ

Mikeltxiren emanaldia bi orduz. **21:00etan** bokata jatea. **23:30ean** DJ Mikeltxiren emanaldia.

Abuztuak 17, igandea

09:30ean diana txistulariekin. **13:00etan** herri kirol saioa plazan. Lierni Osa ariko da harri jasotzen eta aizkoran, Iker Vicente, Axier Pellejero, Hodei Ezpeleta *Biurri* eta Joxean Etxeberria. **14:30ean** herri bazkaria Sarayola cateringaren eskutik. Joanes Illarregi eta Nerea Ibarzabal bertso-lariak ariko dira bazkaria alaitzen. **18:00etan** pilota partidak. **19:00etan** *Aranburugoitiarrak*. Herri Kirolak antzezlanak plazan. **21:00etan** sagardo dastaketa. **23:30ean**, erromeria Bide batez taldearekin.

Abuztuak 18, astelehena

09:30ean diana trikitilariekin. **11:00etan** umeentzako puzgarriak eta jokoak plazan. **16:00etan** mus txapelketa udaletxean. (Bikoteko kideetako batek aresoarra izan beharko du). **17:00etan** haurren eta gaztetxoaren krosa. **18:30ean** patata tortilla lehiaketa karpan. **19:00etan** erromeria Olgetan taldearekin. **Segidan**, sari banaketa. **21:00etan** patata tortilla afaria. **23:30ean** erromeria Olgetan taldearekin.



ITURGINTZA | BEROKUNTZA
GASA-GASOLIOA | MOBLEAK
MANPARAK | KOMUNERAKO OSAGARRIAK

pesta zoriontsuak igaro!

Tel. 647 525 516 • ARESO | LEITZA
arkaitzareso@gmail.com



**Desguaces
Tafalla**

Gure web orrian
kontsulta daiteke
piezen eskuragarritasuna
eta zuzenean erosi
web orrialdean:

www.desguacestafalla.es

Harremanetarako tel.:
948 702 730

Eskaerak egiteko tel.:
747 755 324

Lizarra errepidea, 31. km, 6, 31300 Tafalla, Nafarroa

GUREAN HASTEN DA ZURE EROSKETA BIDAIA!



Irekiak 7/7



Doako
aparkalekua



Jatetxeak



Dendak



Supermerkatuak



ventabiok.com

IBARDIN - DANTXARINEA - LUZAIDE



BIOK
EXPERIENTIAL SHOPPING

«Pozgarria da plaza bete jende dantzan ikustea»

ALAITZ OLANO MARZOL ARESOKO GAZTEA



ENERITZ IRAOLA

34 urteko aresoarra da Alaitz Olanok Marzol. Badaki eskuratu duen titulu berriak baldintzatuko duela aurtengo Aresoko pestak biziko dituen modua: «ama izan berri naiz eta eguneko pestan ibili beharko dugu gauekoak besteentzat utzita!». Udal taldeko kidea ere bada eta bere ardurak «euskara, berdintasuna eta pesta batzordea» direla azaldu du. Ez da bakarrik aritzen, «Olatz Telleria eta biok elkarrekin ari gara. Ardurak binaka banatuta, elkarren arrimoan, errazagoa baita!».

Pesten antolakuntzan ibili dira azken aldian: «martxo aldean hasita, hainbat herritar biltzen gara pesta batzordean denentzako izango diren pestak antolatzeke». Azken ordukoen bat beti izaten den arren, programazioa aspalditik itxita eta lotuta daukate eta lanak herritarren artean banatuta: «hori bai, egunean bertan gainean egon behar izaten da dena ongi atera dadin».

Herritarrek festen antolakuntzan arituta, «garai batean baino egitarau oparagoa» izaten dela uste du, «haurra nintzen garaitik asko aldatu dira pestak». Orduko oroitzapenak dantzan jarrita, «zezenak plazara ekartzen zituztela» da etortzen zaion lehen oroitzapena: «plaza ixten zuten, baina beti alde egiten zuten eta niri beldur handia ematen zidan horrek».

Musika ere egoten zen baina ez dut gehiagorik gogoan».

Aurtengoan pestekin aski ez eta aurretik ere egin dute proposamen berezia: «herriko festei begira frontenis txapelketa mistoa antolatu dugu eta saltsa polita sortu da frontoi eta plaza inguruan».

Areson «hein handi batean mahai inguruan» ospatzen dituzte pestak: «bezperan guraso elkarteok antolatutako afaria izaten da. Amabirjin eguna norbere familiarekin biltzen da. Kuadrilla eguna festetako egun kuttuna dugu. Txarangarekin kalejira, bazkaria, kuadrillen arteko jolasak... 17an herri bazkaria, pilota partidak, antzerkia, sagardo dastaketa. Eta festak amaitzeko umeen eguna». Gautxorientzat, berriz, «ia gauero erromeria talderen bat izaten da eta giro ederra izaten da txosna inguruan goizaldera arte».

Aresoko pestak, «herrikoiak eta partehartzaileak» dira: «herritar askok hartzen dugu parte antolaketa, baita ekintzetan ere». Dena den, beti dago hobetzeko tarte, «eta oraindik eta parte hartzaileagoak» izatea nahiko luke. Egitarauak horretarako aukera ematen duela uste du: «adin tarte guztietako jendearentzat festa aproposak dira».

Aresoar askorentzat bezalaxe, «Kuadrillen Eguna» du gustuko, «lagun guztiak biltzen gara eta egun polita pasatzen dugu elkarrekin». Egun horretan bertan dantzatzen duten ingurutxoak ere nabarmendu du: «plazan dagoen herritar ugari animatzen da dantzatzeri eta giro alai sortzen da. Pozgarria da plaza bete jende dantzan ikustea». Gainera, dantzarako posizio berezia izaten du Olanok ingurutxoan: «badira urte mordoxxa bat anaia eta biok ingurutxoaren hasieran dantzatzen dugula». Txistu doinuak entzun orduko, zapi urdina eskuan hartu eta dantzara aterako da aurtengo. Herritarrek sortutako zubipetik pasatzean, baietz beste behin ere irribarre bat izan zintzilik ezpainenetan.



ENERITZ IRAOLA

Ongi pasa pestak!

euskron

Etorri gurekin lanera!

+34 948 510 807
www.euskron.com

Elusteder 4
31876 Areso

Pesta zoriontsuak opa dizkizue

ARESOKO UDALA

NARBARTEKO BESTAK 2025



Maite Iriarte Yanci

ASEGURUAK ETA INBERTSIOAK
HURBILTASUNA ETA KONFIANTZA



Besta gorontsuak opa diezkiegu!!

📍 Santiago, 72 | ELIZONDO
T: 948 58 05 04 📞 669 32 63 33
📧 oc.elizondo@generalimediadores.es



Ongi pasa bestak!

JOXEMI BENGOTXEA

EGUR SALMENTA | TEILATUAK | FATXADAK
ZOLAK | ESKAILERAK | ATEAK | LEIHOAK
EGURREZKO ESTRUKTURAK | ALTZARIAK



660 501 584

www.joxemibengotxea.com



ASKAPE

ERAIKUNTZA HONDAKIN KUDEATZAILE ZENTROA
HARROBIA | HORMIGOIAK | ESKABAZIOAK
KONTENEDORE ZERBITZUA | ESKOILERAK



948 592 111

canterasaskape@gmail.com

Abuztuak 20, asteazkena

09:30ean haurrendako jokoak.
11:00etan gosaria. **12:00etan** txupinazoa eta horrekin batera, etxez etxeko eskea. **15:00etan** haurrendako Bertiz Abentura Park. **18:00etan** txokolate jatea. **21:00etan** Zopak Beñat musikariak alaituta.

Abuztuak 21, ortzeguna

11:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 18:00etara puzgarriak. **13:30ean** haurren eta gurasoen bazkaria. **17:30ean** mus eta partxis txapelketak. **19:30ean** Lerro dantza taldearen emanaldia. **Ondotik** gazteek egindako bokatak.

Abuztuak 22, ortziralea

08:00etan plater tiroketa. **14:00etan** gazteen bazkaria. **17:00etan** gazteen jokoak. **20:30ean** tortilla jatea. **23:00etatik 03:00etara** Bizphiru Pelau taldearekin dantzaldia.

Abuztuak 23, larunbata

08:00etan auroak. **11:00etan** meza. **Ondotik** haurren herri kirol saioa eta luntxa. **14:30ean** zikiro jatea, Bittor Elizagoien eta Manolo Arozena bertsolariarekin. **17:00etatik 22:00etara**



Andoni akordeoilariarekin dantzaldia. **Ilunabarrean**, jangelako gurasoek egindako bokatak. **00:00etatik 03:00etara** Bide Batez taldearekin dantzaldia. **03:00etatik 06:00etara** DJ Ventura.

Abuztuak 24, igandea

11:00etan haurren hirugarren krosa. **18:00etan** herri kirolak: helduak gazteen kontra. **Ondotik** A toda madre mariatxiak. **21:00etan** kantu zaharren afaria. **00:00etan** Gaixoa ni Andoni akordeoilariaren eskutik.



«Bestak disfrutatu behar ditugu baina elkar errespetatuz»

MAIALEN GOMEZ IBARRA NARBARTEKO GAZTEA

Musika da Maialen Gomez Ibarrenaren (Narbarte, 2025) afizio handietako bat. Baina ez bakarra, «ilunabarrak ikustea eta mendira joatea» ere maite baitu. Haurrak ere «izugarri» gustatzen zaizkio eta zaletasun horietako biri atea irekiz, alde batetik, irakasle ikasketak egiten ari da Iruñeko Unibertsitate Publikoan, eta bertzetik, musika ikasketak Iruñeko Pablo Sarasate kontserbatorioan. Aitortu duenez, «ttikitatik nahiko garbi izan dut irakasle izan nahi dudala eta musika mundua ere beti gustatu izan zait». Hartutako bidearekin kontent da eta azken ikasketurtea «hagitz ongi» joan zaiola kontatu du: «Gainera, aurtun praktikak izan ditugu, hurrekin lehenbiziko kontaktua izan dut, eta aski gustura aritu naiz. Esperientzia polita izan da».

Ikasturtean zehar «Narbartetik Iruñera egunero joan-etorria eginez» ibili da, bere hitzetan, «herrian lasaia bizi baikara!». Baina Iruñeko buelta horiek alde batera utzita, «udan lanean eta lasai» dabil, «lagunekin eta hurbilekoekin denbora pasatuz». Gehiago ere bai: «Posible bada, ilunabarrak ikustera joatea edo eskapada tiki bat egitea gustatuko litzaidake». Eta uda aipatuta, herrian mugimendu gehiago sumatzen dela esplikatu du: «Herri ttikia da Narbarte, nahiko lasaia, eta ikasturtean zehar ez da gazte aunitzik ikusten. Baina uda ailegatzen dela nabaritzen, gazte gehixeago ikusten da herrian barna. Aipatu behar da herriko ostalua itxi izanak herria gehiago itzali duela, baina hala ere, ahal den moduan elkartzen gara. Zerbait antolatuz gero, jende dezente elkartzen gara, herriari bizitasuna emanez».

Herriko beste begira

Eta bizitasun hori Gomezek hain gustukoak dituen herriko bestetan ere sumatzen da. Aitortu duenez, «bestak aunitz gustatzen zaizkit» eta «bereziak» iruditzen zaizkio, «berezi hainbat adinetako jendea elkartzen garelako. Herri ttikia izanik, jende gehiena elkartzea hagitz polita izaten da, bizi-



tasuna nabaritzen da». Narbarte «herri bestazalea» dela ere onartu du, «eta ez gazteak bakarrik! Helduak ere bai! Herriarrok bestak aunitz maite ditugu eta bakoitzak ahal duen neurrian parte hartzen du».

Aurtengoei begira, bortz egunetarako egitaraua prestatu dute, esplikatu duenez, «adin guzietako jendearendako ekitaldiak». Gazteak ibili dira antolatzen, eta tartean Gomez bera: «Eguberriak baino lehenago hasi ginen prestatzen». Hala ere, lanean «nahiko gazte gutti» direla dio, «25 inguru bertzerik ez».

Gainerakoan, bortz egunetan gozatzeko saiatuko bada ere, «gazteen eguna» du maiteena eta lehenbiziko eguneko «etxez etxeko buelta» ekitaldirik gustukoena, «beste hasiera emateko modu ezin hobea da eta. Hor izaten dugun gogoa eta giroa hagitz bereziak dira». Eskatzen hasita, berriz, «gazteondako ekitaldiren bat gehiago izatea edo zerbait berritzailea egitea» aipatu du, eta horrekin batera herriarrei igorri die mezua: «Urtero zerbait pasatzen da, baina aurtun dena emanez disfrutatu behar ditugu bestak, elkar errespetatuz eta zainduz. Besta giro onekoa izan dadila!». Horri lotuta, «Narbartek espazio segurua, lasaia eta giro onekoa izaten segitzea» nahi duela nabarmendu du.

ongi pasa bestak!
948 59 21 53
Gorriti, 3 • NARBARTE

**ZURE INPRENTA
ETA PUBLIZITATE
BANAKETARAKO
ENPRESA**

ongi PaSa beStak!!

Inprimategia

**Publizitate
banaketak**

Arribilagako bidea, 55 686 747 713
31739 Narbarte 648 847 167

www.mailpostabuzoneos.com
amaia@mailpostabuzoneos.com

LEGASAKO BESTAK 2025

**MARMOLES
SOULE**

www.marmolessoule.com

ARIZKUN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444
marmolessoule@gmail.com

LAPIDAK
PANTEONAK
KANPOSANTUAK
HARRI LANAK
ESKULTURAK

**BRIKO
BAZTAN, SL**

Ongi pasa
bestak!

Drogeria · Garbiketa produktua · Ferretaria
Sukaldeko tresnak · Mozorroak · Papertegia
Kiroleko eta mendiko jantziak · Moda...

T. 608 016 052

San Andres, 66 · NARBARTE



Carnes Sein Haragiak, S.L.
Industrialdea, 27 · MAFRIDO ERAIKINA · DONOSTIA
T. 943 467 244 | 943 467 444 · carnessein@bordako.com



kattalin

ATERPE-JATETXE-OSTATUA

Santa Catalina, 24 · LEGASA
T. 948 592 322 · 948 450 704

Aste tartzet:
EGUNEROKO MENUA

Asteburutan:

ASTE BURUKO MENU BEREZIA · HAURRENTZAKO MENUA
+ Plater konbinatuak, bokatak...

AKTIBITATEAK

Navarra
Aventura

Erreserbak
eta informazioa:
T. 948 592 322
bkz@navarraaventura.com | www.navarraaventura.com



Abuztuak 27, asteazkena

10:00etan Bertiz Abentura Park.
20:00etan txupinazoa Herriko Etxean.
Ondotik danborrada eta buruhandiak.
21:00etan zopak Kattalin ostatuan.
23:00etatik 05:00etara DJ Jalisko eta Jontxu.

Abuztuak 28, ortzeguna

07:00etan aurorak. Ondotik gosaria herriko plazan. 09:00etan herriko txistulariak. 11:00etan meza. Ondotik, bandera dantza, aureskua Legasako dantzari ttikien eskutik eta dantza luzea. 12:15ean luntxa Kuku elkartearen. 16:30ean mus txapelketa. 19:00etatik 20:00etara Doneztebeko haurren dantza taldearen emanaldia. 21:30ean gerren afaria. 23:00etatik 03:00etara DJ Endara.

Abuztuak 29, ortziralea

11:30etik 13:00etara haurrendako jolasak. 17:00etan zirku tailerra. 18:30ean txokolate jatea. 19:00etatik 22:00etara Modesto musikaria. 22:00etan zezensuzkoa. 23:00etatik 04:00etara DJ Endara.

Abuztuak 30, larunbata

09:00etan herriko txistulariak. 12:00etan erraldoiak eta buruhandiak. 14:00etan zikiro jatea. 17:00etatik 23:00etara DJ Jalisko & Jontxu. 00:00etatik 04:00etara Muxutruk.

Abuztuak 31, igandea

11:30ean pilota partidua frontoian: bat infantilen mailakoa eta bertzean: Titin V.-Barbarin, Bustinze-Gonzalez II. en kontra. 12:00etan kalejira herriko trikitilariekin. 17:00etan bingoa. 18:00etan Zubietako taloak. 19:00etatik 21:30etara Los Tajudos del Norteren emanaldia. 21:30ean zezensuzkoa.

Irailak 6, larunbata (Lokari)

18:30ean Odei Magoa herriko plazan. 20:00etan altxaferoa eta ezkila jotzea. 21:00etan zopak.

Irailak 7, igandea (Lokari)

12:00etan meza. 13:00etan bazkaria. 17:00etatik 21:00etara DJ Jalisko eta Jontxu.

Ardiarana
ARDI GAZTAK

Besta zoriontsuak opa dizkizue!



LEGASA · 948 45 64 58

Online denda: www.quesosardiarana.com